

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

OIARTZUNGO UDALA

2022. urterako ordainsarien igoera

Udalak, 2022ko martxoaren 30ean egindako osoko bilkuran, honako hauek erabaki ditu:

Lehena. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, % 2ko ordainsari-igoera orokorra baimentzea, 2021eko abenduaren 31n indarrean dauden urteko ordainsari osoen aldean, Oiartzungo Udalaren zerbitzura diharduten funtzionarioentzat eta lan-kontratuko langileentzat.

Bigarrena. Udalkideen eta behin-behineko langileen ordainsari-mailak ehuneko berean baimentzea, udal langileen ordainsari-mailekin bat etor daitezten.

Hirugarrena. Erabakia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea.

Erabakia behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuak erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, jakinarazpenaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, interesatuak aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsioa aurkezteko ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpenaren biharamunetik kontatzen hasita. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsioak aurkeztu harik eta berraztertzeokoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespina gertatu arte.

Dena dela, egoki irizitako beste edozein errekurtsio aurkez daiteke.

Oiartzun, 2022ko apirilaren 4a.—Jexux Leonet Elizegi, alkatea.
(2077)

AYUNTAMIENTO DE OIARTZUN

Incremento retributivo para el año 2022

El Ayuntamiento, en sesión plenaria celebrada el día 30 de marzo de 2022, ha acordado:

Primero. Autorizar, con efectos 1 de enero de 2022, un incremento retributivo global del 2 % sobre las retribuciones anuales íntegras vigentes a 31 de diciembre de 2021 para el personal funcionario y laboral al servicio del Ayuntamiento de Oiartzun.

Segundo. Autorizar en el mismo porcentaje los incrementos de los niveles retributivos de los miembros de la corporación y del personal eventual para que se correspondan con los niveles retributivos del personal municipal.

Tercero. Publicar el acuerdo en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

El acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Contra el presente acuerdo podrán las personas interesadas interponer directamente recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de su notificación.

No obstante, las personas interesadas podrán interponer con carácter previo recurso potestativo de reposición ante el órgano que ha emitido el acuerdo en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación. En tal caso, no podrá interponerse recurso contencioso-administrativo hasta que recaiga resolución expresa de reposición o se haya producido su desestimación presunta.

Todo ello, sin perjuicio de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

Oiartzun, a 4 de abril del 2022.—El alcalde, Jexux Leonet Elizegi.
(2077)